



Astelehena, 2014-04-07

**hitza** info  
Donostiako informazioa euskaraz

ZUREA DA HITZA

Nabigazioa ☰

## Jai ederra egin dute Martuteneko haurrek

by **Estitxu Zabala** on 2014/04/06 in **AISIA, GIZARTEA**

Urumearen inguruko jolasak eta tailerrak antolatu ditu Haritzalde Naturzaleen Elkarteak auzoko parkean.



Zaku lasterketa egin dute. (Argazkia: E. Zabala)

*Urumea Bizi!* lelopean, goiz osoa jolasean igaro dute Martuteneko haurrek. Izan ere, haurrentzako jaiak antolatu du Haritzalde Naturzaleen Elkarteak, Martuteneko parkean. Eguraldi ona lagun, jai ederra egin dute eta gurasoek ere parte hartzeko aukera izan dute. Apirilaren 26an Loiolan egingo

dute jaia.

Denetik izan dute txikienek goizaz gozatzeko, ipuin kontalaria, Urumearen inguruko jolas didaktikoak, tailerrak... hori bai, hamaiketakoa irabazteko, lanean jarri dituzte Haritzaldeko lagunek. Haur bakoitzak Urumea nola ikusten duen marraztu behar izan du, eta marrazkien truke hamaiketakoa egiteko mandarina eta astoek bultzatutako gurdietan ibiltzeko aukera izan dute. Betiko jolasetan ere ibili dira, zaku lasterketak, lokots bilketa eta sokatira. Gainera, bazkaltzera joan aurretik dantzatzeko aukera ere izan dute, bakarlari batek bere gitarraz giroa alaitu baitu.

San Telmo Museoa dagoen *Ura, ibaiak eta herriak* erakusketaren herritar agendaren barruan egin dute haur festa. Asteburu honetan Haritzaldeko antolatu duen bigarren jarduera izan da, izan ere, Urumearen garbiketa egin zuten atzo, herritarren laguntzarekin.



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)



(Argazkia: E. Zabala)

